

## ABENDUALDIA

### ABENDUALDIKO I. IGANDEA (A)

#### Otoitza

Jaungoiko ahalguztiduna,  
emaiezu zeure fededunei  
beren egintza onekin Kristoren bidera ateratzeko gogo,  
egunen batez, Haren eskuin aldean jarririk,  
zeruko erreinua irits dezaten.  
Zure Seme Jesu Kristo.

#### I. IRAKURGAIA: Is 2, 1-15

*Jaunak herri guztiak biltzen ditu bere erreinuan,  
betiko bakea goza dezaten.*

#### Isaias Profetaren liburutik

Isaiasek, Amosen semeak, Judari eta Jerusalem buruz izandako ikuskaria:

Azken egunetan, Jaunaren etxearen mendia  
sendo izango da ezarria:

muino guztien gaindi, mendi guztien buru;  
atzerri jendeak hara joko du.

Herri asko joango dira, esanez:

«Zatozte, igo gaitezen Jaunaren mendira,

Jakoben Jainkoaren etxera:

Berak erakutsiko dizkigu bere bideak,

eta Haren bideziorretan ibiliko gara;

Siondik aterako baita legea,

eta Jerusalemik Jaunaren hitza».

Berak epaituko ditu atzerriak,

auzira ekarriko herriak eta herriak.

Golde bihurtuko dituzte ezpatak,

eta gitai, lantzak.

Ez du herrik herriren aurka ezpatarik jasoko,

ez dira gudurako berriz trebatuko.

Zatoz, Jakoben etxe,  
gabiltzan Jaunaren argitan.

ERANTZUN SALMOA: Sal 121, 1-2. 4-5. 6-7. 8-9

R/. **Bagoaz pozik Jaunaren etxera.**

Hura poza nirea, esan zidatenean:

«Bagoaz Jaunaren etxera».

Oraintxe gure oinak iritsi dira,

Jerusalen, zure atarira. R/.

Leinuak, Jaunaren leinuak, hara igotzen dira,

Israelen lege denez, Jaunaren izena ospatzera.

Han dago jarriarik auzi mahaia,

Dabideneko mahaia. R/.

Eska itzazue Jerusalem entzat bakerako direnak:

«Lasai bizi bitez zu maite zaituztenak.

Izan bedi bake zure harresietan,

lasaitasun zure jauregietan». R/.

Nire anai eta lagunengatik,

hau diot: «Bakea zurekin».

Jaunaren, gure Jaunaren etxearengatik,

ondasunak opa dizkizut zuri. R/.

II. IRAKURGAIA: Erm 13, 11-14

*Hurbil dugu gure salbamena.*

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Ezagutu ezazue bizi zareten garaia: ordua da, lotatik esnatzeko; sinesten hasiberri hartan baino hurbilago dugu gaur gure salbamena.

Badoa gaua; gainean dugu eguna; ken ditzagun, beraz, ilunbetako egintzak eta jantzi argizko armak. Gabiltzan jator, egun argiz bezala; ez jan-edankerietan eta hordikerietan; ez lohikerietan eta neurrigabekerietan; ez haserre eta elkarrentzako bekaitzetan. Hartzazue Jesu Kristo Jauna soineko, eta zuen gorputza zaintzeak ez bitza biztu grina txarrak.

EBANJELIOA: Mt 24, 37-44

**Aleluia:** Sal 84, 8

R/. Aleluia.

V/. Jauna, zure onginahia erakutsiezaguzu,  
zure salbamena emaguzu. R/.

*Zaudete erne, prest egon zaitezten.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zien bere ikasleei: «Gizonaren Semearen etorrera Noeren egunak bezala izango da. Uholde aurreko egunetan, jan-edanetan zebilen jendea, eta ezkontzen ziren gizon-emakumeak, Noe kutxan sartu zen eguneraino; eta ez ziren konturatu, uholdea etorri eta guztiak eramán zituen arte; horrela izango da Gizonaren Semearen etorrera ere. Orduan bi lagun izango dira soroan: bata hartua izango da, eta bestea utzia; bi emakume ariko dira errotharrian: bata hartua izango da, eta bestea utzia.

Zaudete erne, beraz, ez baitakizue zuen Jauna zein egunetan etorriko den. Badakizue: etxe nagusiak baleki, gaueko zein ordutan etorriko den lapurra, erne egongo litzateke eta ez luke bere etxea zulatzen utziko. Zuek ere prest egon zaitezte, uste ez duzuen ordutan etorriko zaizue eta Gizonaren Semea».

### **Oparigaien gainekoa**

Onar, Jauna,  
zure esku zabaletik hartuta dakarzkizugun dohainak;  
iguzu, ogi-ardo hauekin orain eta hemen egiten duguna,  
betiereko salbamenerako izan dakigula.  
Jesu Kristo.

Prefazioa: Abendualdikoa.

### **Jaunartze ondorengoa**

On egin diezagula, Jauna,  
orain ospatu dugun sakramentuak;  
beronen bidez irakasten diguzu,  
mundu honetako gauza iheskorren artean gabiltzanoi,  
iraunkorrei jarraitzen eta zerukoak maitatzen.

Jesu Kristo.